

Irakurri arreta handiz hurrengo prentsa-oharrea jasotzen den informazioa. 2006. urteko laugarren hiruhilekoan Internet erabili duen pertsona kopuruari buruzko datuak dira horiek.

Eustaten datuen arabera, 2006ko azken hiruhilekoan, Euskal AEn 14 urtetik gorako 766.400 pertsonak erabiltzen zuen Internet, hau da, Euskal AEn adin hori duten biztanleen % 41,6k erabiltzen zuen. Urte bereko bigarren hiruhilekoaren aldean ehuneko hori % 1,5 gehitu da, baina aurreko urtearen aldean % 10,9 gehitu da.

Lurralde historikoka, Bizkaian gehitu da gehien erabiltzaile kopurua: % 4, 2006ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Horrela, Interneteko erabiltzaile kopuru handiena dutenen artean bigarren geratu zen % 41,5ekin. Gipuzkoa da oraindik erabiltzaile gehien duen lurraldea -% 42,8-; 2006ko bigarren seihilekoan % 1 gehitu da kopuru hori. Araban, aldiz, % 2,7 gutxitu da Internet erabiltzen duen pertsona kopurua laugarren hiruhileko honetan; horrela, Internet erabiltzen duten 14 urtetik gorako biztanleak % 39,4 izan dira.

Iturria: http://www.eustat.es/elem/ele0004100/not0004165_e.html
(Prentsa ohar berdin bat edo eguneratua aurkituko duzu)

❖ Egin erabiltzaile kopuruaren arabeko sektore-diagramak, lurraldeka, 2006ko bigarren hiruhilekoa eta urte bereko laugarren hiruhilekoa kontuan hartuta.

Horretarako, lehenbizi egin taula (diagrama egiteko hobe duzu kalkulu-orria erabili, baina ez ahaztu alderdi bakoitzaren ehunekoa eta aldagaien izenak ere jartzea diagraman).

(2006ko II. hiruhilekoko taula)

(Sektore-diagrama)

(2006ko IV. hiruhilekoko taula)

(Sektore-diagrama)

- ❖ Aurreko orrialdeko prentsa-oharrean ematen den informazioa aintzat hartuta egin puntu-diagramak; 2006. urteko bigarren hiruhilekoan eta urte bereko laugarren hiruhilekoan lurralde bakoitzean egon den erabiltzaile kopurua hartu behar duzu oinarri moduan. Horretarako, lehenbizi egin taula (diagrama egiteko hobe duzu kalkulu-orria erabili, baina ez ahaztu alderdi bakoitzaren ehunekoa eta aldagaien izenak ere jartzea diagraman).

(2006ko II. hiruhilekoko taula)

(2006ko IV. hiruhilekoko taula)

(Puntu-diagrama)

(Puntu-diagrama)